

Familia estimatuak

Ikastetxeko mediku aseguruari berri ematera gatozkizue.

Gaur egun ikastetxean bi Eskola Aseguru mota ditugu:

- a) **Aseguru pribatua MGSrekin Ikaslarin bidez zerbitzu medikua eskaintzen duena.**
Borondatezkoa bada ere, Eskola Kontseiluaren erabakiz, ikastetxeko 1. eta 2. DBHko ikasle guztiek daukate aseguru hau. Honen truke familiek 11,8 € ordaintzen dute ikasleko urtean.
(Familiei 34 € kobratu zaie berriki: 11,8 aseguru eta 22,2 materiala)
Aseguru honek ikastetxean bertan laguntza medikua bermatzen du. Lehenego medikuari deitzen zaio, honek ikaslea artatu eta dagokion zentzura desbideratu behar den erabakitzen du, gure kasuan QUIRONera. Hantxe ikaslea hartu eta tratatuko dute.
Garraioa familiei dagokie.

- b) **Gizarte Asegurantzaren Eskola Asegurua.**
Derrigorrezkoa 3.DBHtik gorako ikasle guztientzat. 1,12 € ordaintzen da ikasleko urtean.
(3. eta 4.DBHko familiei 25,12 € kobratu zaizkie: 1,12 aseguru eta 24 eskola materiala, eta batxilergoko familiei 13,12 €: 1,12 Aseguru eta 12 eskola materiala)

Ez dago sorospen medikurik ikastetxean. Familia deitu eta honek hartu behar du ardura. Kasu honetan ez dago aurretiko diagnostikorik eta familia lehen unetik bertatik etorri beharko du ikastetxera ikaslearen ardura hartu eta edozein zentru publiko zein ondoko kontzertatuetako batera eraman: San Juan de Dios, Centro Medico Gane, JF Larruscain Zamacona, Clinica Virgen Blanca.

Orain arte, MGSn aseguraturiko ikasleak 1. eta 2. mailakoak baino ez baziren ere, sorospen medikuak ikasle guztiak babesten zituen harrigarria badirudi ere.

Baina MGStik jakinarazi digutenez, aurrerantzean aseguraturik dauzkagun ikasleak baino ez dituzte artatuko, alegia, 1. eta 2. DBHkoak.

Beraz, 3. eta 4. DBH, 1. eta 2. Batxilergoko familiek Ikaslarinen zerbitzuaren abantailak izaten jarraitu nahi badute dagokien kuota ordaindu beharko dute, alegia, 11,8 €.

Erabakia **lehen bait lehen** har dezazuen eskatuz idazten dizuegu.

Aseguru pribaturik nahi ez baduzue honako frogagiria bete eta idazkaritzara ekarri.

Nik,

.....ikaslearen guraso edo tutore naizena, adierazten dut

EZ

dudala aseguru pribatua kontratu nahi

Sinatuta

Azaroaren 17an asegurua kargua egingo zaie kontrakoa adierazi ez duten familia guztiei.

